

"LANDAOLA" GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN ELKARTEEN FEDERAZIOA

Nº Registro: FD/G/00173/2012

Fecha de constitución: 04/10/2011

Fecha de inscripción: 16/01/2012

Domicilio: Goizane Zentroa, Olaeta auzoa 6

Municipio: Zaldibia

C.P.: 20247

Territorio: Gipuzkoa

Clasificación: Socio-Económico

Finalidad: Promociones Sectoriales

1.- Honako helburu orokor hauek lortzea : A) Euskal landagunea zaintzeko. I) Euskal landagunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa edukiko duen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despopulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dauden lurraldearen antolamenduko tresnekin bat. II) Nekazaritza eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna, euskal landagunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun eta enpleguiturria eta euskal gizartearentzako oinarrizko ondasunen hornitzailea delako, lurraldearekiko errespetua duen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduaren alde eginez. III) Natura-ondarea eta paisaia zaintzea, ikuspegi integral batetik. Ikuspegi horrek uztartu egingo ditu ingurumen babesari, kontserbazioari eta leheneratzeari buruzko araudien betetzea baliabideen aprobetxamendu jasangarriarekin, garapen sozioekonomikoarekin eta gizarteak natura gunez gozatzearekin, horietan bizi direnen bizimodua eta jarduerak errespetatuz. IV) Energia sortzeko iturriak deszentralizatzea eta landa ingurunea energiaren hornitzeko instalazio txikiak bultzatzea. Horiek bateragarriak izango dira ingurumena eta lurraldea zaintzearekin eta mantentzearekin. B) Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko. V) Euskal landa-ingurunean ekintzaitza eta barneekintzaitza sustatzea; xede horrekin, enpresa dinamismo endogenoa indartzea eta berrikuntzari lotutako ekintzaitza-agertoki berriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digitaletan, baita landa-eremuko balio-kate berriei lotutakoak ere, balio-kate horiek onura sozial argiak ekarriko baitituzte bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorak eta kalitatezkoak sortuko baitituzte. VI) Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskallanda-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia duten nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoa sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak direnak, landa erakundeei aberastasuna sortzen dietenak eta ingurumen- eta klima-helburuak betetzen laguntzen dutenak. C) EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hobetzeko eta biztanleria horren zahartzeari eta despopulazioari buelta emateko. VII) Landa-ingurune bizi-kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea, haietarako sarbidea bermatuz aukera-berdintasunean hiri-ingurune bizi-kalitatearekin. VIII) IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizikaltatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea den aldetik. IX) Landa-ingurunean etxebizitzarako irispidea izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia eta ingurumen-arloko ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintza batean oinarrituta. X) Landa-ingurunearen natura-, kultura eta identitate ondare materiala nahiz immateriala babestea. Hain zuzen ere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira. XI) Berrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza delakoan. XII) Landa-ingurunearen despopulazioaren aurka borrokatzea, zerbitzu espezifikoak emanez, bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak dituzten familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko. 2. Honako helburu espezifiko edo sektorial hauek lortzea: A.- Lurralde antolamenduen arloan: I) Bidea ematea Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (LAG), lurralde-plan partzialak (LPP), lurralde-plan sektorialak (LPS) eta hiri antolamenduko plan orokorrak (HAPO) onartzeko edo berrikusteko prozesuak landagunea zaintzeko lagungarriak izan daitezen, eta

Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo

aurreikusten diren lurralde-garapeneko programetan (LuGP) jasotako beharrian eta estrategiak kontuan har daitezten horiek idaztean. II) Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren abenduaren 23ko 17/2008 Legeko 11. titulutik sortutako araudian jasotzen diren tresnak, nekazaritza-lurrak babestekoak, garatzea eta aplikatzea, tresnok funtsezkoak baitira nekazaritza-lurrak bertan behera uztea eragozteko eta haren artifizializazioa saihesteko, elikagaien hornidurarekiko betetzen duten funtzioa babestua. III) Euskal Autonomía Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adieraztea eta adostea landagunea kontserbatzeari dagokionez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diren irizpideak. B.- Nekazaritzaren, basogintzaren eta elikaduraren arloan: I) Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna handitzea, eta horretarako produktuen berezitasunerako pizgarriak ematea kalitatean, ingurumen jasangarritasunean eta elikadura-segurtasunean oinarrituta; ekoizpen naturala eta ekologikoa sustatzea; sektorea egituratzen laguntzea asoziazionismoaren eta kooperatibismoaren bidez, eta merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak optimizatzeko, arreta berezia eskainita garapen endogenoko jarduketei eta merkaturik hurbilenetan egin beharreko sustapenari. Lehentasuneko arreta eskainiko zaie familia-ustiatzei, bereziki horien titularra emakumea edo nekazari gaztea denean. II) Baso-kudeaketa jasangarria eta orekatua bultzatzea, baso autoktonoak eta jarduera tradizionalaren osagarri izango diren aukera-nitxo berriak sustatuz eta enplegu egonkorrak, seguruak eta kalitatezkoak sortuz eta mantenduz, horretarako bitartekoak ezarrita. III) Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Planarekin koordinatuta, nekazaritzako elikagaien industriaren garapena indartzea, bereziki lehen sektorearen eragile den horren garapena, eta elikaduraren balio-katean integrazio bertikala egiteko prozesuak ere bai; horren haritik, balio-kate horretan garrantzi handiagoa emango zaie ekoizleei, gastronomia-ondarea errealizatzeko eta balio erantsi handiagoa sortzeko bitartekoak baitira. IV) Nekazari-errentari eusten laguntzea, Nekazaritza Politika Erkidearen finantza-baliabideak optimizatuz eta behar bezala kudeatuz. V) Belaunaldi-aldaketa bultzatzea sektorean, familia nekazaritzarekin batera, eta emakumezko nekazari protagonismo handiagoa ematea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean xedatutakoarekin bat. VI) Erraztea eta ikuskatzea lehen sektoreak ekoizpen kostuak baino prezio handiagoak jasotzen dituela bere produktuen truke, horrela ezartzen baitute Estatuko araudiak (Elikadura Katearen Legea) eta Europakoak, sektore bideragarri eta lehiakorrari eusteko helburuarekin. VII) Euskal nekazaritza-ekologiako ondarea mantentzea eta bultzatzea. VIII) Lehen sektoreko produktuak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea sustatzea, banaketa eta merkaturatze-kanalak sustatuz. IX) Europar Batasunaren Baserritik Mahaira estrategia babestea eta hori garatzen laguntzea. X) Kontratazio publiko arduratsuko baldintza-agiriak sustatzea, gizarte eta ingurumen-irizpideak lehenesteko helburuarekin XI) Lehen sektoreko ekoizpena: nekazaritza eta abeltzantza C.- Natura-ondarean eta ingurumenaren kontserbazioaren arloan: 1) Iraunarazteko eta leheneratzeko lanetan laguntzea ekosistemetan eta ekosistemen zerbitzuetan, bereziki Natura 2000 Sareko gune eta habitatetan, bai eta abian jartzen diren ekintza-planetan katalogatutako paisaietan ere. Horretarako, kudeaketako plan eta tresnak bateragarri egingo dira basogintza eta abeltzaintza arloko eta ekonomia arloko jarduera tradizionalekin; jarduera ekonomiko berriak garatzen, berriz, kontuan hartu beharko da gune horiek kontserbatu behar direla eta euskal herritarrek espazio horietaz gozatzea. II) Natura-gune babestuek eta, bereziki, Natura 2000 Sareak sorrarazten dituzten aukerez eta kanpo efektuez baliatzea landa-eremuetako jarduera ekonomikoa dibertsifikatu eta sustatzeko. III) Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategia eta Europar Batasuneko 2030erako Biodibertsitateari buruzko Estrategia garatzen laguntzea. IV) Ingurumena babesten laguntzea, ingurumenaren hondaketari aurrea hartuz eta kaltea jasan duen lekuetan leheneratzeko bidea emanez, uraren, lurzoru emankorraren, biomasaren, biodibertsitatearen eta paisaiaren kudeaketa iraunkorraren bitartez, giza jardueren eta lurraldearen kontserbazioaren arteko oreka bilatuz. V) Klima-aldaketaren arloko EAEko helburuek Europar Batasunaren helburu klimatikoekin lerrotzea. VI) Neurri jasangarriak sustatzea ekosistemen zerbitzuak eta nekazaritzako eta basogintzako jarduerak ingurumenaren arloan ekarritako beste kanpo-efektu positibo batzuk bultzatzen laguntzeko, eta horren aintzatespen soziala erraztea. D.- Landa ingurune sare ekonomia dibertsifikatzearen eta enplegu-sorreraren arloan: I) Kalitatezko enplegu egonkorra sortzen sustatzea eta laguntzea, landa-eremuetako biztanleek aukera berdina izan ditzaten. Horretarako, arreta berezia jarriko da emakumeentzako, gazteentzako eta enplegua lortzeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuentzako programa espezifikoaren garapenean. II) Ekintzailtzari eta landa-ingurunean eragina duten enpresen sorrerari laguntzen dioten funts, programa eta jarduketak instituzionalak koordinatzea, kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko eta mantentzeko. III) Lanaren antolaketarako eredu berriak garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horien garapenaren bidez, kalitatezko enplegua lortzeko eta belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen parte hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntzateknologikoez, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0

Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo

abeltzaintzak eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuko dira. IV) Euskal landa-ingurunean enpresa txiki eta ertainak eta mikroenpresak atzitzeko eta egonkortzeko tresnak eta ekipamenduak bideratzea; horretarako oinarritzko zerbitzuak txertatzea, hala nola finantza, aseguru, aholkularitza eta kudeaketa-zerbitzuak, enpresa bilbeari testuinguru trinkoa eta fidagarria ziurtatzeko eta, hala, testuinguru horretatik abiatuta lan egiteko. V) Landa-ingurunean guneak gaitu eta dinamizatzea, gune fisiko nahiz birtualak, non ekintzaileek beren ekintzailtza-prozesua garatu ahaliko duten, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatuz eta gune horien sareko kudeaketa bultzatuz. VI) Landa-turismo jasangarria sustatzea, bai eta jarduera horri lotutako jarduera ekonomikoak ere, hala nola, gastronomia, merkataritza, tokiko merkatuei lotutako ekipamenduen modernizazioa, nekazaritza turismoak, kanpinak, landetxeak eta ostatu-eskaintzako beste modalitate batzuk. Horretarako, landako ostatu establezimenduen garapena bultzatuko da, masifikazioa saihesteko eta jarduera tradizionalak eta natura ingurunea errespetatzeko helburuarekin. VII) Ekosistemak eta ekosistemen zerbitzuak iraunarazteari eta leheneratzeari lotutako jarduera ekonomiko jasangarriak bultzatzea, eta biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzen dutenak ere bai. VIII) Prestakuntza-programak garatzea, ekintzailtza eta barne-ekintzailtza sustatzeko landa-ingurunean enpresa-dinamismoa indartzeko. IX) Emakumeen presentzia handiagoa sustatzea landa-ingurunean enpresa, kooperatiba, elkarte eta, oro har, erakundeen erabaki-organoetan, ingurune horretan emakumearen ahalduntzea indartzeko. X) Landa-ingurunean lehen mailako jarduera dibertsifikatzen eta jarduera berriak garatzen laguntzea. XI) Landa-ingurunean lehendik dauden jarduerak indartzea, horien modernizazioa bultzatzea eta jarduera berriak ezartzea ahalbidetuko duen politika fiskala garatzea. E.- Landa-nukleotako eta landa-entitateetako oinarritzko azpiegituren arloan: I) Energia berriztagarri eta jasangarriari lotutako azpiegituren garapena indartzea, bereziki baso biomasa erabiltzen duten azpiegiturena, helburu hirukoitz batekin: Euskadiren energia-nahi kotasuna handituko duten energia-forma garbiak sortzea; ekonomiaren garapenerako nitxo berriak inplementatzea, eta baso-azalera handien kudeaketa ziurtatzea, hala arrisku naturalak saihestuz eta lurraldearen iraunarazpenean lagunduz, eta iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren auto sorkuntza eta autokontsumoa erraztea, bai landa guneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan. II) Kalitatezko oinarritzko azpiegituren sare bat bultzatzea, zeinak bermatuko baitu landa-ingurunean biztanleriak ur, saneamendu, telekomunikazio eta elektrizitate-hornidura zerbitzuak eskura ditzen. III) Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea, eta landa-eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharrezan egokitzen zaizkien sistema alternatiboak sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz. IV) Landa-entitate, -udalerrri eta -eremuetan ibaiarroak atontzeko eta leheneratzeko proiektuetan laguntza ematea. V) Lantegiak, eraldaketa-zentro txikiak, hiltegiak eta antzeko azpiegiturak sustatzea, ekoizpen-eredu jasangarriagoak bultzatzeko, etorkizunean elikadura autosufizientzia handitzeko eta 0 km-ko elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezkoen hornitzaile izateko. F.- Etxebizitzaren arloan: I) Kalitatezko etxebizitza-politika bat bultzatzea, landa ingurunearen beharrei eta aukerei egokitu, ingurune hori ohiko bizileku gisa erakargarri bihurtuko duena, espekulazioa saihestuko duena eta landa ingurunean gazteei bidea emango diena etxebizitza eskuratzeko. II) Landa-ingurunean biztanleria mantentzea eta handitzea. Xede horrekin saihestuko da biztanleriak eremu horiek uztea eta populazio-dentsitate handiagoko beste batera joatea; gutxieneko biztanleriari bide emango zaio, iraunarazteko eta zerbitzu berriak abian jartzeko, bereziki osasun eta hezkuntza zentroak, eta populazio berria kokatzea erraztuko da, modu ordenatuan. III) Ondare higiezin hobetzen eta kontserbatzen laguntzea, eta hala, ondare horren nortasun kulturala zaintzea. G.- Hezkuntzaren, kirolaren eta kulturaren arloan: I) Behar diren zerbitzuak ezartzea landa-eremuko biztanleriak hezkuntza-eskaintza behar bezala eskura dezan bultzatzea, biztanleria horren berezitasunak kontuan hartuko dituzten irizpide eta baremoak erabiliz, bereziki derrigorrezko irakaskuntzari dagokionez, urrunen dauden eta tamaina txikiak daukaten biztanle guneetan. II) Irakaskuntzaren kalitatea sustatzea, euskal landa-ingurunearen eta, batik bat, lehenengo sektorearen berezitasunei egokitzen zaizkien hezkuntza-arloko eredu, teknika eta jarraibide berritzaileak joz; eredu, teknika eta jarraibide horiek, era berean, landa-eremuetako biztanleek ezagutzeko eta baloratzen modukoak izango dira, eta lehentasun gisa eremu horietako emakumeen eta gazteen prestakuntza eta gaikuntza bultzatuko dute. III) Landa-eremuetako biztanleen unibertsitateko, lanbideko eta lanerako prestakuntza sustatzea, biztanle horien beharrezan zehatzei egokitu prestakuntza garatuz. IV) Hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak orokorrean antolatzen bidea ematea, eta horretarako, balio eta funtzio anitzeko ekipamenduak sustatzea, eta dauden desorekak zuzentzea. V) Landa-eremuko kulturaren eta ondarearen ezagutza, zabalkundea eta balioa sustatzea, gizarteak orokorrean landa-ingurunean dauden prozesu eta balioen berririk ez daukala-eta, egoera hori gainditzeko modua delakoan. VI) Landa-eremuetako natura-, historia-, kultura- eta paisaia-ondarea berreskuratzea, kontserbatzea, garatzea eta zabaltzea, euskararen erabilera eta sustapena zeharka bultzatuz. H.- Osasunaren eta gizarte-ongizatearen arloan: I) Osasun-baliabideak urrunen dauden eta tamaina txikiak daukaten landa-guneetako bezaileengana

Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo

modu progresiboan hurbilduko dituen osasun-eskaintza sustatzea, bereziki lehen mailako arretan, pertsona nagusiei eta behar bereziak dituztenei artatze egoki bat eskainiz. II) Landa-eremuko biztanleriaren beharrianei erantzuteko bereziki diseinatutako farmazia-eskaintza sustatzea. III) Landa-entitate eta -udalerrietan jarduten duten Euskal Osasun Sistemako profesionalei eta zentroei bitarteko eta teknologia modernoak eskura jartzea; bereziki, Tele medikuntza. IV) Gizarte-ongizateko ekipamenduen garapenean laguntzea, talderik kalteberenei arreta berezia emanda. 1.- IKTen arloan : I) Telekomunikazio-azpiegituren hedapena bultzatzea eta horretarako bidea ematea, modu berean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta bereziki azken teknologiko banda zabala hedatzea, landa-eremuko eragileek globalizazioan sartzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten, hala saihestuko baita hiriko lurraldearen eta landa-eremuko lurraldearen arteko arrakala digitala. II) Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema berriak ikertu eta bultzatzea, IKTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezkiko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez. J.- Berrikuntza arloan: I) Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetzak bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharriari bete ditzaten. II) Gaiakuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartzea, landa-ingurunean eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dezaten eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboak eduki dezaten. Horrekin batera, prestakuntza hori euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuko da. III) Ezagutzaren sozializazioa sustatzea, akademiaren, ikerketaren eta aholkularitzaren esparruetatik nekazaritza-elikaduraren sektorerara transferitzen dela ziurtatuz, baita esparru akademikoari nekazaritza-sektorearen behar zehatzak helaraztea ere. Horrez gain, ezagutzaren trukea erraztea azken erabiltzaileen eta elikaduraren balio kateko mailen artean. IV) Euskal landa-ingurunean berrikuntza sozialaren eredu jakin bat garatzea; eredu horren oinarriak dira eragile anitzeko ikuspegiak, baterako sorkuntza, herritarren zientzia eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-formula berrien aldeko apustua. V) Talentua landa-eremuetara erakartzeko bide egokiak prestatzea, ekintzaitza bultzatuz eta enpresa berritzaileei inguru horietan kokatzeko erraztasunak emanez. VI) Gastronomia eta elikaduraren balio-katearen digitalizazio integrala sustatzea, lurralde adimendunaren euskal estrategiarekin bat etorriz. 3- Administrazioak arazoarekiko sentikor bihurtzea, jardueraren xede diren inguruneen baliabide endogenoen aprobetxamenduari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, eta inguru horien garapen harmonikoa eta osokoa lortze aldera. 4.- Landa Garapeneraren arloari buruzko informazio guztia jasotzen eta banatzen den zentroko kideei zerbitzu egitea; zeregin hori, gehienbat, hauxe jakitea izango da: une oro zein zuzkidura, baliabide eta proiektu dagoen, Elkartek edo bere kideek egiteko modukoak. 5.- Kideei aukera ematea landa-garapenean esku hartzeko metodologiak eta esperientziak beren artean truka ditzaten. 6.- Landa Garapenerako programetan parte hartzea eta horrelako programak egitea. Programa horiek genero ikuspegia txertatu eta emakumeen ahalduak bultzatuko dute. 1. La consecución de los siguientes objetivos generales: A) En el ámbito de la preservación del espacio rural vasco. I) La adecuada ordenación territorial del espacio rural vasco conforme a un método de desarrollo territorial sostenible que contemple un enfoque integral, sistémico y multisectorial, en equilibrio, que evite espacios de despoblación y abandono, en consonancia con los instrumentos de ordenación del territorio vigentes. II) La sostenibilidad y multifuncionalidad del sector agroforestal, como principal gestor del espacio rural vasco, fuente de riqueza y empleo, así como proveedor de bienes básicos a la sociedad vasca, favoreciendo modelos de producción basados en una agricultura respetuosa con el territorio. III) La preservación del patrimonio natural y el paisaje desde una visión integral que compagine el cumplimiento de las normativas de protección, conservación y restauración ambiental con el aprovechamiento sostenible de los recursos, el desarrollo socioeconómico y el disfrute de los espacios naturales por la sociedad, respetando la forma de vida y las actividades de las personas que viven en ellos. IV) Descentralización de las fuentes generadoras de energía e impulso de pequeñas instalaciones para abastecer de energía al medio rural, compatibles con la preservación y el mantenimiento del medio ambiente y del territorio. B) En el ámbito del fomento y la diversificación de la actividad económica en las zonas rurales del País Vasco. V) El fomento del emprendimiento y el intraemprendimiento en el medio rural vasco, buscando la potenciación del dinamismo empresarial endógeno y contemplando nuevos escenarios de emprendimiento ligados a la innovación, especialmente en contextos digitales de territorio inteligente («smart territory»), así como a nuevas cadenas de valor rurales que, desde el campo de la biotecnología, la economía social y la economía circular proyecten claros beneficios sociales y generen empleos estables y de calidad. VI) La diversificación económica y la creación de empresas en los nichos económicos que, además de la actividad agraria, presentan un importante potencial de crecimiento en el medio rural vasco: turismo sostenible, salud y bienestar, industria alimentaria, gastronomía y restauración, ocio de aventura, energías renovables, comercio de artesanía, etcétera. El fomento de actividades económicas de alto valor añadido, resilientes a los impactos derivados de las cadenas de suministro de materias y energía globales, que generen riqueza a las entidades rurales y favorezca el cumplimiento de los objetivos ambientales y climáticos. C) En el ámbito de la

Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo

mejora del nivel de bienestar de la población rural vasca y reversión de su envejecimiento y de la despoblación. VII) La mejora de las infraestructuras, servicios y equipamientos públicos necesarios para asegurar una buena calidad de vida a los y las habitantes del medio rural, garantizando el acceso a estos en igualdad de condiciones con los habitantes del medio urbano. VIII) El uso de las TIC como vía para mejorar la calidad de vida y el trabajo de la población que habita las zonas rurales, así como para mitigar el aislamiento del medio rural. IX) El acceso a la vivienda en el medio rural desde un urbanismo respetuoso con las características socioeconómicas, paisajísticas y medioambientales de cada zona. X) La preservación del patrimonio natural, cultural e identitario del medio rural, tanto material como inmaterial, que es preciso conservar, poner en valor y fortalecer, para las futuras generaciones. XI) La incorporación de la innovación en el medio rural como una herramienta para la transformación social, multidisciplinar y sistémica. XII) La lucha contra la despoblación en el medio rural, mediante la dotación de servicios específicos, particularmente en educación y sanidad, que favorezcan el asentamiento de familias con hijos e hijas y el incremento de la natalidad. 1. La consecución de los siguientes objetivos específicos o sectoriales: A.- En materia de ordenación del territorio.: I) Propiciar que los procesos de aprobación o revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio (DOT), de los planes territoriales parciales (PTP) y sectoriales (PTS), así como de los planes generales de ordenación urbana (PGOU), contribuyan a la preservación del espacio rural y a valorar en su redacción las necesidades y estrategias recogidas en los programas de desarrollo territorial (PDT). II) Desarrollar y aplicar los instrumentos de defensa del suelo agrario previstos en el Plan Territorial Sectorial Agroforestal y en la normativa derivada del título 11 de la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, como elementos básicos para evitar el abandono y la artificialización del suelo agrario, preservando la función que cumple como proveedor de alimentos. III) Señalar y consensuar en el ámbito de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco todos aquellos criterios que cualquier tipo de instrumento de ordenación deberá contemplar en materia de conservación del espacio rural. B) En materia de agricultura, silvicultura y alimentación. I) Potenciar la competitividad del sector agrario, estimulando la diferenciación de los productos por la calidad, sostenibilidad medioambiental y seguridad alimentaria, promoviendo la producción natural y ecológica, fomentando la vertebración sectorial a través del asociacionismo y el cooperativismo, y una promoción comercial que optimice su productividad y los costes de producción, con especial atención a las actuaciones de desarrollo endógeno y a la promoción en los mercados más próximos. Se dedicará una atención prioritaria a las explotaciones familiares, especialmente cuando su titular sea una mujer o una persona joven agricultora. II) Impulsar una gestión forestal sostenible y equilibrada, fomentando los bosques autóctonos y nuevos nichos de oportunidad que complementen la actividad tradicional, manteniendo y generando empleos seguros, estables y de calidad, y estableciendo medios para ello. III) De manera coordinada con el Plan Estratégico Gastronómico y Alimentario de Euskadi, potenciar el desarrollo de la industria agroalimentaria, en especial de la trectora del sector primario, y los procesos de integración vertical en la cadena de valor alimentaria, concediendo mayor peso en ella a las personas productoras, como vehículos para la revalorización del patrimonio gastronómico y la generación de mayor valor añadido. IV) Apoyar el sostenimiento de la renta agraria, optimizando y gestionando adecuadamente los recursos financieros de la PAC. V) Potenciar el relevo generacional en el sector, la agricultura familiar y el papel de las agricultoras, con el fin de garantizar el cumplimiento de lo establecido en la Ley 8/2015, de 15 de octubre, del Estatuto de las Mujeres Agricultoras. VI) Propiciar y supervisar que el sector primario perciba unos precios por encima de los costes de producción de sus productos, tal y como se establece en la normativa estatal (Ley de Cadena Alimentaria) y europea, con el fin de mantener un sector viable y competitivo. VII) Mantenimiento e impulso del patrimonio agroecológico vasco. VIII) Promover la venta directa de los productos del sector primario a la persona consumidora final fomentando canales de distribución y comercialización. IX) Apoyar y contribuir al desarrollo de la estrategia De la Granja a la Mesa de la Unión Europea. X) Fomentar pliegos de contratación pública responsable, con el objetivo de priorizar criterios sociales y medioambientales XI) Producción primaria: agrícola y ganadera C) En materia de conservación del patrimonio natural y medio ambiente. I) Contribuir al mantenimiento y restauración de los ecosistemas y sus servicios, en especial los espacios y hábitats de la Red Natura 2000, así como los paisajes catalogados en los planes de acción que se pongan en marcha, compatibilizando los planes e instrumentos de gestión con el mantenimiento de las actividades silvoganaderas y económicas tradicionales, y el desarrollo de nuevas actividades económicas compatibles con la conservación y el disfrute de esos espacios por la ciudadanía vasca. II) Aprovechar las oportunidades y externalidades que generan los espacios naturales protegidos, la Red Natura 2000 en particular, para diversificar y potenciar la actividad económica de las zonas rurales. III) Apoyar el desarrollo de la Estrategia de Biodiversidad de Euskadi 2030 y de la Estrategia sobre Biodiversidad 2030 de la Unión Europea. IV) Coadyuvar a la protección del medio ambiente, previniendo su deterioro y propiciando su restauración donde haya sido dañado,

Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo

mediante una gestión sostenible del agua, del suelo fértil, de la biomasa, de la biodiversidad y del paisaje, buscando el equilibrio entre las actividades humanas y la conservación del territorio. V) Alinear los objetivos de la CAPV en materia de cambio climático con los objetivos climáticos de la Unión Europea. VI) Fomentar medidas sostenibles que contribuyan a potenciar los servicios ecosistémicos y otras externalidades medioambientales positivas derivadas de la actividad agroforestal, y favorecer su reconocimiento social. D) En materia de diversificación del tejido económico del medio rural y la creación de empleo. I) Promover y apoyar la creación de empleo estable y de calidad que facilite la igualdad de oportunidades de la población rural, con especial atención al desarrollo de programas específicos para mujeres, personas jóvenes y otros colectivos con dificultades para el acceso al empleo. II) Coordinar los fondos, programas y actuaciones institucionales de apoyo al emprendimiento y a la creación de empresas que incidan en el medio rural, en el mantenimiento y creación de empleo estable y de calidad. III) Apoyar el desarrollo de nuevos modelos de organización del trabajo. Para ello se tomará como base la economía social, solidaria y colaborativa. Mediante su desarrollo, con el fin de conseguir empleo de calidad y relevo generacional y de impulsar la participación de las mujeres, se aprovecharán las oportunidades que ofrecen las nuevas tecnologías de la información, las innovaciones tecnológicas, la bioeconomía, la digitalización, la industria 4.0, la agricultura 4.0 y la ganadería 4.0. IV) Propiciar instrumentos y equipamientos atractivos para la captación y asentamiento de pymes y microempresas en el medio rural vasco, incorporando servicios básicos tales como, entre otros, financieros, de seguros, de asesoría y gestión, para asegurar al entramado empresarial un contexto tupido y fiable desde el que trabajar V) Habilitar y dinamizar espacios en el medio rural, tanto físicos como virtuales, donde las personas emprendedoras puedan desarrollar su proceso de emprendimiento, fomentando la colaboración público privada e impulsando la promoción y la gestión en red de dichos espacios. VI) Fomentar el turismo rural sostenible, así como las actividades económicas ligadas a esta actividad, como la gastronomía, el comercio, la modernización de los equipamientos ligados a mercados locales, los agroturismos, campings, casas rurales y otras modalidades de oferta alojativa. Para ello, se impulsará el desarrollo de establecimientos alojativos rurales, para evitar la masificación y con el objetivo de respetar la actividad tradicional y el medio rural. VII) Impulsar actividades económicas sostenibles ligadas al mantenimiento y restauración de los ecosistemas y sus servicios, así como aquellas que contribuyan a la mejora de la salud y al bienestar de la población. VIII) Desarrollar programas formativos de cara al fomento del emprendimiento y el intra emprendimiento la potenciación del dinamismo empresarial en el medio rural. IX) Potenciar una mayor presencia de las mujeres en órganos de decisión de, empresas, cooperativas, asociaciones y, en general, entidades presentes en el medio rural, como elemento para potenciar el empoderamiento de la mujer en este medio. X) Contribuir a la diversificación de la actividad primaria y al desarrollo de nuevas actividades en el medio rural. XI) Desarrollar una política fiscal que permita potenciar las actividades existentes, fomente su modernización y favorezca la implantación de nuevas actividades en el medio rural. E) En materia de infraestructuras básicas en los núcleos y entidades rurales. I) Potenciar el desarrollo de infraestructuras ligadas a energías renovables y sostenibles, y en particular las de utilización de biomasa forestal, con el triple objetivo de generar formas limpias de energía que aumenten el grado de suficiencia energética de Euskadi; implementar nuevos nichos de desarrollo económico, y asegurar la gestión de grandes superficies forestales, evitando así riesgos naturales y contribuyendo al mantenimiento del territorio, además de facilitar la autogeneración y autoconsumo de energía procedente de fuentes renovables y sostenibles, tanto en los núcleos rurales como en las explotaciones agroganaderas. II) Impulsar una red de infraestructuras básicas de calidad que garantice el acceso de la población del medio rural a unos servicios de abastecimiento de agua, saneamiento, telecomunicaciones y suministro eléctrico. III) Facilitar la movilidad de las zonas rurales, mejorando la red viaria y de caminos, el transporte público, y promoviendo sistemas alternativos que se adecuen a la realidad y necesidades de la población de las zonas rurales, impulsando la movilidad sostenible. IV) Apoyar proyectos de acondicionamiento y restauración de cuencas fluviales en entidades, municipios y zonas rurales. V) Fomentar talleres, pequeños centros de transformación e infraestructuras similares, con el fin de impulsar modelos de producción más sostenibles, incrementando la autosuficiencia alimentaria en el futuro, y tener proveedores de alimentos de km 0 seguros, saludables y de calidad. F) En materia de vivienda. I) Impulsar una política de vivienda de calidad adaptada a las necesidades y oportunidades del medio rural, que lo haga atractivo como lugar de residencia habitual, evite la especulación y facilite el acceso de las personas jóvenes del medio rural a la vivienda. II) Mantener e incrementar la población del medio rural, evitando el abandono de dichas zonas hacia otras más densamente pobladas, propiciando un modo de población que contribuyan a la pervivencia y puesta en marcha de nuevos servicios, especialmente centros de salud y educativos, y facilitando un asentamiento ordenado de nueva población. III) Contribuir a la mejora y conservación del patrimonio inmobiliario, preservando así su identidad cultural. G) En materias educativa, deportiva y cultural: I)

Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo

Implantar los servicios necesarios para el acceso adecuado de la población rural a la oferta educativa, con criterios y baremos que tengan en cuenta sus especificidades, en especial en lo relativo a la enseñanza obligatoria para los núcleos de población más alejados y de menor tamaño. II) Promover la calidad de la enseñanza hacia modelos, técnicas y pautas educativas innovadoras que se adecuen a las peculiaridades del medio rural vasco, así como especialmente del sector primario, favorezcan su conocimiento y valoración por parte de la población de las zonas rurales, e impulsen la formación y capacitación prioritaria de las mujeres y las personas jóvenes de tales zonas. III) Fomentar la formación universitaria, profesional y ocupacional de los habitantes de las zonas rurales desarrollando una formación adaptada a sus necesidades específicas. IV) Favorecer la articulación global de los equipamientos educativos, culturales y deportivos, promoviendo su polivalencia y multifuncionalidad, y corrigiendo los desequilibrios existentes. V) Promover el conocimiento, difusión y valorización de la cultura y patrimonio rurales como forma de superación del desconocimiento existente en la sociedad en general de los procesos y valores presentes en el medio rural. VI) Recuperar, conservar, desarrollar y divulgar el patrimonio natural, histórico, cultural, paisajístico de las zonas rurales, garantizando de manera transversal el uso y la promoción del euskera. H) En materia sanitaria y bienestar social.: I) Promover una oferta sanitaria, en particular de atención primaria, que acerque progresivamente los recursos sanitarios a la población de los núcleos rurales más alejados y de menor tamaño, ofreciendo una atención adecuada a las personas mayores y a quienes tienen necesidades especiales. II) Promover una oferta farmacéutica específicamente diseñada para responder a las necesidades de la población rural. III) Dotar a los y las profesionales y centros del Sistema Vasco de Salud, que ejercen en entidades y municipios rurales, de medios y tecnologías modernas, en particular de la telemedicina. IV) Apoyar el desarrollo de equipamientos de bienestar social, con especial atención a los colectivos más sensibles. 1.- En materia de TIC: I) Impulsar y promover el despliegue de las infraestructuras de telecomunicaciones al mismo nivel en todo el territorio vasco, y en particular el despliegue de banda ancha de última generación que permita el acceso a la globalización y la participación de los agentes rurales, evitando una brecha digital entre territorio urbano y rural. II) Investigar e impulsar nuevos sistemas para el diseño y desarrollo de servicios en el medio rural, aprovechando las TIC y el despliegue de banda ancha en el territorio y siendo proactivos en la búsqueda de soluciones alternativas. III) Se fomentarán la agricultura 4.0 y la ganadería 4.0, en colaboración con la academia y con las empresas locales. Se utilizarán las tecnologías digitales en el desarrollo rural para reforzar y mejorar el sector agrario y ganadero, creando la red necesaria en el sector y poniendo a disposición de este objetivo los recursos digitales y la formación necesaria para su uso. J.- En materia de innovación: I) Impulsar la cooperación entre agentes de las zonas rurales para que las acciones de investigación e innovación respondan a sus necesidades reales. II) Facilitar instrumentos de capacitación, formación y desarrollo de habilidades que permitan a los agentes del medio rural aprovechar la innovación y tener capacidad proactiva en los procesos de innovación. Asimismo, se garantizará el derecho a recibir dicha formación en euskera. III) Fomentar la socialización del conocimiento, asegurando su transferencia desde los ámbitos académicos, de investigación y asesoramiento hacia el sector agroalimentario, así como la comunicación al ámbito académico de las necesidades concretas del sector agrario. Asimismo, facilitar el intercambio de conocimiento entre las personas usuarias finales y los diferentes eslabones de la cadena de valor alimentaria. IV) Desarrollar un modelo de innovación social en el medio rural vasco, basado en enfoques multiactor, de cocreación, de ciencia ciudadana y la apuesta por nuevas fórmulas de colaboración público-privada. V) Construir canales adecuados para atraer talento hacia las zonas rurales facilitando el emprendimiento y la instalación de empresas innovadoras. VI) Promover la digitalización integral de la cadena de valor agroalimentaria en el marco de una estrategia vasca de territorio inteligente. 3- Sensibilizar a la administración acerca de los problemas, con el fin de sacar el mayor provecho posible a los recursos endógenos del entorno, objetos de la actividad, y lograr así un desarrollo total y armónico del entorno. 4.- Servicio de recopilación y distribución a los socios del centro receptor de toda la información referente al desarrollo rural; esta labor comprende principalmente saber en todo momento que suministro, recurso y proyecto existe capaz de ser realizado por la asociación, federación o sus miembros, quienes la componen. 5.- Dar la oportunidad a los socios para intercambiar metodologías y experiencias válidas para la intervención en el desarrollo rural. 6.- Participar en los programas de desarrollo y realizar programas de este tipo. Participar y elaborar programas de desarrollo rural con perspectiva de género y fomentando el empoderamiento de las mujeres

Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo



Estos son los datos que constan en el Registro a fecha de 25/04/2026

Esta publicación de datos del registro tiene carácter meramente informativo

"LANDAOLA" GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN ELKARTEEN FEDERAZIOA